

Torre del Pino-ko belakiak.

Torre del Pino, *Axarquía* eskualdean kokatua, kostaldea zaintzen duten almena dorreetariko bat da, *Acantilados de Maro-Cerro Gordo* izeneko Natura Parkearen baitan.

Ur azpian, animalia iragazleak ugariak dira, horma hauek trinkoki kolonizatzen dituzten hainbat belaki mota eta laranja koloreko koralak bezala.

Belaki espezie eta kolore aniztasun handia dago; hori, zuri, gorri eta urdin koloreak espezie bataren edo bestearen ezaugarriak dira.

Hymeniacidon sanguinea belaki gorriak ura sartu eta kanporatzeko erabiltzen dituen oskuluak ikusten ditugu irudian, baita ur hauetan hain ugariak diren partikula esekiak ere.

Ingurune hauetan, animalien mundua da nagusi; *koral faltsua* edo *koralina* deitzen diren koralinazeoen koloniak ohikoak dira, baita arrain bentonikoak ere, krabarroka beltza, adibidez, ia sedentario deituko genukeena, mugimendu bizkorrak eta ibilbide motzak egin arren.

Kolore anitzeko belakirk substratu harkaiztsua estaltzen dute, batzuetan baita hormen malda ere.

Kokapena eta substratuaren arabera, belakiaren forma ingurunera moldatzen da: hormetan itsasten direnean, itxura lauagoa eta estuagoa hartzen dute, eta harro eta puztuagoa, hondoetan zutik direnean, *Axinella* generoko belaki horia kasu, herriak *orein adar* deitzen duena.

Beste belaki batzuek ez dute hain forma zutitua hartzen. Irudian, belakiaren barnealdean elkarren artean komunikatzen den hodi sarea ikus dezakegu. Bertan, ura eta elikagai dituzten partikulak mugitzen dira.

Espazioagatiko lehiari buruz substratu hauetan burututako ikerketek diotenez, espezie ezberdinek elkarri presioa egiten diote, bakoitzak bizitzeko eremu minimoa lortzeko. Horrela sortzen den kolore askoko mosaikoa aldakorra da, tokia kolonizatzen duten espezieak, iragazleak gehienetan, aintzat hartuz.

Clathrina clathrus bezalako zenbait belakik pedunkuluak luzatzen dituzte substratu berriak kolonizatzeo. Pedunkulu horien luzera aldakorra da.

Belaki amarengandik jaio eta harkaitzetik *Posidonia oceanica* dagoen sakonera gutxiko uretara irristatzen dira.

Hedatze-estrategia honek organismo sesilen arteko lehia latza irudikatzen du.

Ondoko eremuetara hedatzeko zailtasunaren aurrean, propaguloak urrun botatzeko estrategiak abantaila nabaria ematen die lehian.

Eskrezentzia horien bidez jatorrizko ale batetik eremu urrunagoak kolonizatzea tankera horretako kolonizatze estrategietariko bat da.

Hedatzeko era berezi horrek aurrera egiten du, kraba eskribau eta dontzeila bezalako arrainen artean, Nerja-ko kostaldeko ur azpiko kobazuloen hormak estaltzen dituzten har tubikola, briozoo eta beste belakien artean.